



Diru-laguntza deialdia, 2025. urtean, "euskara sustatzeko ekimenak" garatzeko jarduerak eta egitasmoak antolatzeagatik.

1998ko uztailaren 28an Eusko Jaurlaritzak onartutako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak xedatzen ditu herri erakundeek hizkuntza Politikak hurrengo urteetan landu behar dituen helburu estrategikoak:

1. Euskararen transmisioa: euskara, belaunez belaun eta etenik gabe, transmititzea, familiaren, eskolaren eta helduen euskalduntze-alfabetatzearen bidez eta hizkuntza bera osatuz, aberastuz eta hobetuz.
2. Euskararen erabilera: euskararen aldeko zerbitzugintza; hots, euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik harantzago eraman eta beste erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetara zabaltzea.
3. Euskararen elikadura: liburu, irati, aldizkari, egunkari, telebista eta abarren bidez.

Honela, Durangoko Udalak "Euskara sustatzeko ekimenak" garatzeko 2025. urtean antolatzen diren jarduerak eta egitasmoak diruz laguntzeko arauak finkatzen ditu.

1. artikulua. Izaera eta erregimen juridikoa

Azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak arautuko du diru-laguntza, lege horren 22.1 artikuluekin bat etorruta. Aipatutako diru-laguntza Durangoko Udalaren 2025eko Aurrekontuetan aurreikusita dago, 2025-2027 Diru-Laguntzen Plan Estrategikoaren barruan, 2024ko abenduaren 19ko Osoko Bilkuran onetsia, eta bertan informazio hau dago:

Kodea: 1.3350.2.ESE

Diru-laguntza: Euskara sustatzeko diru-laguntza deialdia

Zenbatekoa: 38.000€

Partida: 61.3350.48101

2. Artikulua. Xedea

Ebazpen honen xedea da Durangoko Udalaren diru-laguntzen oinarri arautzaileak ezartzea norgehiagoka erregimenean, aurtengo urtean zehar, "euskara sustatzeko ekimenak" egingo dituzten irabazi asmorik gabeko norbanako, entitate eta elkarteei diru laguntzak emateko. Eta hau guztia, kontuan izanik Durangoko Udalaren diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 8. artikulua ezartzen duena.

Diru-laguntza hauen xede diren programek eta jarduerak euskararen normalizazioari zuzendutakoak izan behar dute, eta urteko programak nahiz ekintza puntualak izan daitezke, betiere, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren barruan, Udalak onartuta duen Plan Estrategikoak jasotzen diren esparruekin loturiko ekimenak garatzen badituzte:

Familia transmisioa
Euskalduntzea eta alfabetatzea



Irakaskuntza
Merkataritza eta ostalaritza
Aisia eta kirola
Immigrazioa
Kulturgintza
Hedabideak

3. Artikulua. Onuradunak

Diru-laguntza hauen subjektu onuradunak honako hauek izan daitezke: irabazi asmorik gabeko Durangoko pertsona fisikoak, elkarteak, ikastetxeak eta entitateak, baldin eta deialdi honetan zehazten diren moduko ekimenak burutzen badituzte.

Halaber, Durangokoak ez diren entitateek ere eskatu dezakete diru-laguntza, baldin eta euskara sustatzeko ekimenen bat burutzen badute Durangon.

Merkataritza enpresak deialdi honetatik kanpo geratuko dira, nahiz eta euren jarduerak zerikusia izan euskararen sustapenarekin.

Erakunde onuradunek egunean egon beharko dute Durangoko Udalaren eta beste administrazio publiko batzuen zerga, tasa, arbitro eta zehapenen ordainketan.

4. artikulua. Dokumentazioa aurkezteko lekua

Eskariak Udaleko **egoitza elektronikoan** aurkeztu behar dira .

Eskariari dokumentazio hau erantsi beharko zaio:

a) Dirulaguntza eskari normalizatua.

Aurreko urteetan diru laguntza eskatu ez zuten entitateek, edo bere datuetan aldaketak izan dituztenek, ondorengo agiriak ere aurkeztu behar dituzte:

b) Entitate eskatzailearen estatutuak.

c) Eusko Jaurlaritzako elkarte eta entitateen erregistroaren inskripzio-egiaztagiria.

d) Identifikazio Fiskalaren Kodea.

a) Elkartearen ordezkaritza egiaztatzen duen agiria.

Durangoko Udalak, Bizkaiko Elkarrengarritasunerako Nodoaren bidez eta dagozkion elkarrengarritasun-zerbitzuen bidez, laguntza honen administrazio-izapideak egiteko eskatzen diren eskatzaileen datuen beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu.

Arrazoi teknikoengatik elkarrengarritasuna ezinezkoa bada, Durangoko Udalak izapideak egiteko beharrezkoak diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.



Edozein kasutan, aurreikusitako ekimenari dagokion dokumentazioaz gain, entitate eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal zaie aurkeztutako ekimena behar bezala baloratu ahal izateko.

5. artikulua.- Epea

Eskariak aurkezteko epea 20 lanegunekoa izango da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar laneguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Halaber, jakinaraziko zaio, hala egiten ez badu, eskarian atzera egindakotzat joko dela, eta hala ebatziko da 2015eko urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legearen 68. artikulua aurreikusten dituen terminoen arabera eta, aintzat hartuta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.5 artikulua ezartzen duena.

6. Artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa

Euskara sustatzeko ekimenen artean banatuko den gehienezko zenbatekoa HOGEITA HAMAZORTZI MILA (38.000,00) euro dira. Gastua 61.3350.48101 aurrekontu-partidaren kargura joango da.

Araudi honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako diru-laguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, diru-laguntza murriztu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzultzeko beharrianen bat baino gehiago izanez gero, dena delako pertsona edo erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Durangoko Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

7. Artikulua. Balioztatze-irizpideak

Diru-laguntzak emateko eta zenbatekoa zehazteko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Jarduera mota, ondorengo lehentasun hurrenkeraren arabera. Gehienez ere, 35 puntu:
 - Berezia (tokian tokiko euskararen ondarea, hezkuntza, komunikabideak, ...)
 - Teknologia berriak.
 - Umeentzako jarduera.
 - Gazteentzako jarduera.
 - Edonorentzako jarduera.
- b) Proiektua bat etortzea Eusko Jaurlaritzak onetsitako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburuekin. Gehienez ere, 15 puntu.
- c) Beste finantzaketa-iturri batzuk, eskatu den diru-laguntza kopuruarekin alderatuta. Gehienez ere, 10 puntu.
- d) Proiektuen balio esperimentala, sorkuntza eta nobedadea. Gehienez ere, 10 puntu.



- e) Programaren egokitasuna ikuskatu eta neurtzeko adierazleen erabilera. Gehienez ere, 10 puntu.
- f) Erakundearen ezaugarriak: iraunkortasuna, egonkortasuna, esperientzia eta bermea, beste erakunde batzuekin lankidetzan jardutea. Gehienez ere, 10 puntu.
- g) Arazoak dituzten kolektiboen integrazioa aurreikusten dituzten programak edo/eta aukera berdintasuna aurreikusten dutenak. Gehienez ere, 5 puntu.
- h) Udalak prestaturiko ekimenetako antolaketa-lanetan eta euskaraz kontseiluaz aparteko beste udal kontseiluetan parte hartzeagatik, gehienez ere, 5 puntu.

Diru-laguntza jaso ahal izateko, gutxienez 50 puntu lortu beharko dira. Ekintzak orokorrean puntuatuko dira.

Diru-laguntzen gehieneko zenbatekoak ezingo du eskatzaileak aurkeztutako gastu-kopuru osoaren aurrekontuaren %60a gainditu, betiere, egin beharreko egokitzapenak egin ostean. Portzentaje honi balorazioan lortutako puntuak aplikatuko zaizkio diru-laguntzaren azkeneko zenbatekoa zehazteko.

Gehieneko dirulaguntzak ez du 10.500 Euro gaindituko.

Aurreko eragiketa egin ostean, emango diren diru-laguntzen kopuruak bosgarren artikuluan aipatzen den diru-aurreikuspena gainditzan badu, bigarren eragiketa bat egingo da, eta bertan gutxitu egingo dira emango diren diru-kopuruak, betiere, hasiera batean kalkulaturiko proportzioan.

8. Artikulua. Instrukzioa eta ebazpena

Sail eskudunaren txosten teknikoa aztertu ostean, eta euskara, kultura eta hezkuntza argibide batzordearen proposamenari ekinez, eskariak alkateordearen ebazpen bidez egingo dira, gehienez ere, hiru (3) hilabeteko epean eskariak aurkezteko azkenengo egunetik zenbatuta.

Aipatutako epea igaro ostean ebazpenik jaso ezik, ulertu behar da eskaria gaitzetsi egin dela, gerora egin daitekeen ebazpenaren kaltetan izan gabe.

9. Artikulua. Diru-laguntza ordaintzea

Diru-laguntzaren %80a jakinarazpena egin eta hurrengo hilabetearen ordainduko da, eta honetarako ez zaie inongo bermerik eskatuko onuradunei. Gainerako %20a, eman deneko diru-laguntza justifikatu ondoren ordainduko da. Eta kontuan izango dira, halaber, 11. artikuluan aipatzen diren aspektu guztiak.

10. Artikulua. Betebeharrak

Deialdi honetako diru-laguntzak jaso dituzten entitate onuradunek, Durangoko Udalaren diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte. Besteak beste, ondorengo hauek:

- a) Diru-laguntza emateko eskatzen den jardura egitea edo eskatutako jokabide hori izatea.



- b) Jarduera egiten ari dela frogatzea. Orobat, laguntza emateko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea.
- c) Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.
- d) Diru-laguntza eskaini duen Durangoko Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea, ez eta Esku-hartzailetzari dagozkion finantza-kontroleko jarduketei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere. Horrez gain, laguntza eskainiko dute ikerketa-gai diren lokaletara sartzeko edota bertako dokumentazioa eskuratzeko askatasuna eskainiko dute, baita dokumentuen kopiak egiteko ere.
- e) Diruz lagundutako jarduerari buruz, entitate onuradunak euskara edo euskara eta gaztelania erabili beharko du argitaratutako iragarki, ohar, jakinarazpen eta abarretan. Gainera, diruz lagundutako jardueran diharduela egiaztatzerakoan, hizkuntza betebeharrak hori betetzen duela frogatu beharko du onuradunak.
- f) Erakunde emaileari, hala denean, Estatuko edo nazioarteko administrazio edo herri erakundeengandik helburu bera lortzeko beste diru-laguntzaren bat jaso izana jakinarazi behar diote.
- g) Dena delako jarduerari buruz egingo den publizitatean, nahitaez, Durangoko Udala agertu behar da babesle.
- h) Durangoko udalari baimena ematea diru-laguntzaren funtsak behar bezala erabili eta erabili direla egiaztatzeko.

11. Artikulua. Diru-laguntza justifikatzea

Emandako diru-laguntza justifikatzeko azkeneko eguna, entitate edo pertsona onuradunak, **2026ko otsailaren 28a** da, jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- a) Egindako jardueraren memoria, ahalik eta zehatzena. Bertan, diru-sarrerak eta gastuak erantsiko dira eta, halaber, aipatutako jarduerarako jasotako beste edozein diru-laguntza publiko zein pribatu ere.
- b) Gastuen fakturak, ezinbestez, diru-laguntza eman zeneko helburu eta ekintzei dagozkien gastuei buruzkoak beharko dira izan. Ez dira onartuko beste helburu batzuetarako egindako gastuen fakturak, esaterako, desplazamendu-gastuak, bazkariak, eta abar.

Faktura bakoitzarekin batera **ordainagiria** aukeztu beharko da.

Justifikatu beharreko gastua ondorengo formulatik aterako da: aurrekontu oso depuratua bider emandako diru-laguntza zati eskatutako diru-laguntza depuratua. Justifikatu beharrekoa justifikatu ezik, proportzionaltasunaren araua aplikatuko da.

- c) Justifikazioari honakoak erantsi beharko zaizkio: azterketa, programa, argitalpena eta horma-



irudi iragarleen ale bana. Halaber, jardueraren inguruan sorturiko edozein eratako dokumentazio grafiko zein idatzizko. Euskarri guztietan Durangoko Udalaren babesa agertu behar da. Formatu digitalean aurkeztuko dira.

Fakturetan haxe agertuko da:

- Erakundearen edo/ta elkartearen identifikazioa.
- Hornitzailearen identifikazioa.
- Fakturaren data.
- Jarduera.
- Zerbitzuaren deskripzioa.

Ez dira onartuko:

- Elkarre barruko bazkari, afari eta halakoak.

Pertsonal gastuak:

Pertsonal gastuek ezingo dute justifikatu beharreko gastu osoaren %25a gainditu

12. Artikulua. Dirua itzultzea

Deialdi honetako 10. artikulua b) paragrafoak ezartzen duena betez, diru-laguntza eman deneko jardueraren gastuaren aurrekontuari dagokion gastua justifikatzen ez bada, diru-laguntza osoa edo zati bat eta dagokion berandutze-interesa itzuli beharko da, halaxe ezartzen baitu Durangoko Udalaren diru-laguntzen eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 16. artikulua eta, betiere, Ordenantza bereko 17. artikulua arautzen duen prozedura jarraituz.

Halaber, dirua itzultzeko zioak dira Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 36 eta 37 artikuluetan jasotako guztiak.

13. Artikulua. Araudi osagarria

Diru-laguntza honek ezartzen ez duenari dagokionez, honako lege testuak hartuko dira aintzat: Durangoko Udalaren diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza; diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua eta toki erregimeneko araudi bateragarria.

14. artikulua. Datuen babesa

Durangoko Udalak euskararen erabilera sustatzeko politikak normalizatzeko, antolatze eta kudeatzeko planen kudeaketaren esparruko datuak tratatzen ditu, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen arabera. Datu pertsonalak Udal Euskarategiari eta arloan eskumena duten beste Administrazio Publiko batzuei jakinarazi ahal izango zaizkie, hala nola Eusko Jaurlaritzari. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta datuon tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eskubidea ere, Udalaren helbidera edo dpo@durango.eus helbide elektronikora komunikazio bat bidalita. Halaber, informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu gardentasun-ataria: www.durango.eus